



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2022ko bigarren hiruhilekoa




LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familiak ezkortasunera itzuli dira
 - Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna
 - mesfidantza inguruko herrialdeetan zehar hedatu da
- 


1 EAEko familiak ezkortasunera itzuli dira

2022ko bigarren hiruhilekoak EAEko familien kezka erakusten du; izan ere, konfiantza maila asko jaitsi da (-7, -15 puntu), eta hobekuntza-ibilbidea hautsi da.

Pandemiaren fasea eta pandemia ondorengo fasea gaindituta, gerra-gatazkak sortutako ziurgabetasunaren inpaktua agerian geratu da inflazioaren gorakadarekin (produktu energetikoen prezioetan hasi zen, baina beste produktu eta zerbitzu batzuetara zabaldu da) eta, beste faktore batzuen artean, 2022rako aurreikusita zegoen suspertze ekonomikoa jaistera behartu du.

Bilakaerak erakusten duenez, familien konfiantza maila sentikorra da azken bi urteetako (2020 eta 2021) eta oraingo ekitaldiko (2022) muturreko egoera koiunturalaren aurrean.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE




2 | Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna

Estatuko (-25) eta EB-27ko (-22) familien konfiantza maila ere murriztu egin da, baina EAEko familiek erresilientzia handiagoa erakutsi dute (jaitsiera txikiagoa).

Esan daiteke Estatuko eta EB-27ko familiek lehendik ere eszeptizismo handiagoa erakusten zutela erregistratutako suspertzeari zegokionez (konfiantza txikiagoa eta, orokorrean, balio negatiboak), eta gerra-egoeraren ondorioek sakondu egin dute eszeptizismo hori.

Kontuan izatekoa: pandemiak eragindako krisialditik irtetearen “xanpain efektuaren” inpaktua (inflazio-gorakada); horren ondorioak larritu egin dira egungo gerra-gatazkak eragindako ziurgabetasun-agertokiaren ondorioz.




1. II. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatza batez bestekoa.

3 | mesfidantza inguruko herrialdeetan zehar hedatu da

Aintzat hartutako lau herrialdeetako familietan egin du behera konfiantzak 2022ko bigarren hiruhilekoan: kasu guztietan bilakaera negatiboa gailendu da eta konfiantzaren adierazlearen balioak negatiboak dira.

Frantziako (-19), Alemaniako (-19), Danimarkako (-15) eta Herbehereetako (-25) familien konfiantzari buruzko datuek argi uzten dute egoerak okerrera egingo duen pertzepzioa dagoela. Bilakaera honetan kontuan hartu behar da inflazioa asko igo dela kasu guztietan (maiatzeko urte arteko tasa, KPI harmonizatua-Eurostat): Frantzian (+% 5,8), Alemanian (+% 8,7), Danimarkan (+% 7,4; apirilko datua) eta Herbehereetan (+% 10,2). Egoera orokorra da, eta herrialde askotan bi digitutik gorakoak izan dira igoerak. Horrek arriskuan jarri du familien kontsumoaren eta inbertsioaren suspertzea.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. II. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Apirila-maiatza batez bestekoa.


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko okertu dira
- langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, positiboak dira
- familiako ekonomiari buruzko igurikimena oso negatiboa da
- eta egin beharreko aurrezpenaren gaineko igurikimena atzera egiten ari da
- ziurgabetasunak eta inflazioak okertu egin dute EAEko familien konfiantza

4 | ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko okertu dira

EAEko familiek ekonomia orokorraren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenek kolpe handia hartu dute eta oso balio negatiboa dute (-20). Hala, asko jaitsi da lehenengo hiruhilekotik (-23 puntu) eta pandemiaren unerik okerrenetan zehar erregistratutako emaitzetara gerturatu da: datozen hamabi hilabeteetan EAEko ekonomiak okerrera egingo duen pertzepzioa gailentzen da EAEko familien artean.

Paradoxikoki, 2022ko lehen hiruhilekoari dagozkion datuak positiboak dira. Hazkunde ekonomiko handia izan da (+% 5,7, BPGaren urte arteko tasa; Hiruhileroko kontu ekonomikoak, Eustat), industria-jarduerak ere gora egin du (+% 21, esportazioen urte arteko hazkundera) eta zerbitzuen jarduerak berreskuratu dira (batez ere, ostalaritza-aisialdia-turismoa segmentukoak). Ziur asko, 2022rako espero den hazkunde ekonomikoaren jaitsieraren gaineko etengabeko mezuak eta prezioen igoeraren inpaktu negatiboa daude igurikimenak okertzearen oinarrian.




5 | langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenak, berriz, positiboak dira

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak positiboak dira (8), baina okertu egin dira lehenengo hiruhilekotik (-11 puntu). Hala ere, 5 hiruhilekotan zehar izan dira positiboak eta langabeziaren beheranzko joera etengabearen gaineko konfiantza erakusten du.

Igurikimen horiek bat datoz maiatzean EAEn erregistratutako emaitzekin. Izan ere, maiatzean historikoa izan da Gizarte Segurantzako afiliazioaren zifra (986.436 afiliatu, 2021eko maiatzean baino +23.222), eta erregistratutako langabeziaren zifrek behera egiten jarraitzen dute (113.352 pertsona, 2021ean baino -9.266).


Aintzat hartu behar da pandemian zehar (2020-2021) eta 2022an zehar neurri garrantzitsuak jarri direla martxan enpleguaren galerari eusteko (ABEEEak, adibidez), beste krisialdi batzuetan ez bezala. Horri esker, agertoki honetan, eta une honetako zailtasunak gorabehera, familiek konfiantza mantentzen dute enplegua “eusteari” dagokionez.



6 | familiako ekonomiari buruzko igurikimena oso negatiboa da

Familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pertzepzioa ez da berreskuratu eta ez da 2019an erregistratutako balio positiboetara hurbildu. 2020an, 2021ean eta 2022an eszeptizismoa eta mesfidantza gailendu dira: 2022ko bigarren hiruhilekoan indizearen emaitza negatiboa izan da (-17), eta lehenengo hiruhilekoan baino apur bat okerragoa (-11 puntu). Hain zuzen ere, pandemiako unerik okerreneko balio negatiboetara itzuli da (2020ko bigarren hiruhilekoaren eta 2021eko lehenengoaren artean).

Familiako ekonomiaren igurikimenak lotuta daude konfiantzaren beste bi osagairen bilakaerarekin: langabeziaren bilakaeraren igurikimenak (+8) eta prezioen bilakaeraren igurikimenak (-52). Une honetan bi adierazleen emaitzak kontrajarriak dira, baina, argi eta garbi, prezioen goranzko joera gailentzen da. Horrek oso ageriko inpaktua du familien eguneroko gastuan.




7 | eta egin beharreko aurrezpenaren gaineko igurikimena atzera egiten ari da

EAEko kontsumitzaileek aurrezteko gaitasunaren gainean dituzten igurikimenen bilakaerak uneoro balio positiboak izan ditu 2021eko bigarren hiruhilekoaz geroztik, eta etengabe hazten joan da. Baina, 2022ko bigarren hiruhilekoan, familiek hemendik urtebetera egingo duten aurrezpenaren gainean egiten duten balorazioa asko okertu da (-14 puntua), nahiz eta oraindik balio positiboa izaten jarraitu (1).

Ondasunen eta zerbitzuen prezioen igoerak familien kontuetan izandako inpaktua erakusten du emaitza honek, aurrezteko marjina murriztu egin baita. Eta, bestetik, egindako aurrezpenaren ibilbidea jaisten duten gastu- eta inbertsio-erabakiak hartzen ari dira. Hala, baliteke familiek pentsatzea ezingo dutela azken urtean adina edo gehiago aurreztu. Baina, 2021eko abenduaren 31n, sektore pribatuak (familiak eta enpresak) EAEko finantza-erakundeetan (Espainiako Bankua) zituen gordailuen saldoak urte arteko % 1,0eko hazkundera erregistratu zuen, eta balio historiko altuak dira.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



8 | ziurgabetasunak eta inflazioak okertu egin dute EAEko familien konfiantza

2022ko bigarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza asko okertu da (-15 puntu) eta balio negatiboetara itzuli da (-7): ziurgabetasunaren eta inflazio-gorakadaren aurrean, nolabaiteko ezkortasuna dagoela baieztatu da. Neurri batean, gerra-gatazkak eragin du egoera hori, baina pandemiaren krisitik aldi berean eta modu globalean irten izanak ere eragina izan du -ondasunen eta produktuen merkatuek, eta bereziki lehengaien merkatuek, presio handia jasan dute-.

Konfiantza osatzen duten lau indizeek egin dute okerrera. Ekonomia orokorraren igurikimenez izandako emaitza negatiboa nabarmentzen da (-20) -hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenen etengabeko beherakadekin lerrokatuta-, baita familiako ekonomiaren gaineko igurikimenez izandako emaitza negatiboa ere (-17) -prezioen goranzko bilakaerak baldintzatuta-.

Aldiz, langabeziaren eta aurrezkiaren gaineko igurikimenez (oraindik) positiboak izaten jarraitzen dute (8 eta 1), baina aurreko hiruhilekoko balio baikorretatik urrun (19 eta 15, hurrenez hurren).

Funtsean, ziurgabetasunak eta inflazioak (familien gastu-gaitasuna gutxitu egin da) nabarmen okertu dute EAEko familien konfiantza, eta ezkortasunean sartu da.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE


Indizea...	2019	2020	2021	IIIH-21	IVH-21	IH-22	IIH-22	Aldea
Familien konfiantza	-2	-22	-6	5	0	8	-7	-15
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	6	-8	3	-20	-23
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-4	-9	-6	-17	-11
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	11	10	19	8	-11
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	5	8	15	1	-15

↔ (±2 puntuko aldea)



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- guztiz inflazionista den agertokia sendotu dute EAeko familiek
- erosteko unearen balorazioak okerrera egin du
- eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenek oso ahul jarraitzen dute
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahula da
- erosketa handien eta inbertsioaren gaineko igurikimenak, beherantz




9 | guztiz inflazionista den agertokia sendotu dute EAEko familiek

2021eko udazkenetik aurrera eta 2022ko lehenengo bost hilabeteetan, EAEko familiek albiste bera jaso dute etengabe: “elektrizitateak historiako preziorik altuena du”. Gertaera hori faktura energetikoan islatu da, hazten joan baita, eta hainbat neurri hartu behar izan dira igoera hori arintzeko (BEZa murriztea edo erregaien prezioa diruz laguntzea).

Baina prezioen igoerak gero eta ondasun eta zerbitzu gehiagori eragiten die, eta azpiko inflazioaren² urte arteko hazkundera ia % 5koa da (maiatzeko aurrerapena, EIN).

Zentzu horretan, familien % 65ek uste dute prezioen hazkundera azkarragoa izango dela, % 21ek uste dute erritmo berean hazten jarraituko dutela, eta % 14k baino ez dute uste hazkundera geldoagoa izango dela: funtsean, iritzi horiek azaltzen dute prezioen bilakaeraren indizea okertu izana (-17 puntu), eta oso ezkorra izatea (-52).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

10 | erosteko unearen balorazioak okerrera egin du

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

Prezioek gora egitearen ondorioz, murriztu egin da erosketa handiak egiteko marjina ekonomikoa. Hala, EAEko familien iritzia sendoa da, eta eskura dituzten baliabideak gutxitu zaizkien honetan, okertu egin da erosketa handiak egiteko unearen balorazioa.

Indizeak balio negatiboa du (-35). Izan ere, hamar familiatik lauk uste dute momentu txarra dela (% 42), eta multzo oso txiki batek bakarrik (% 7) uste du momentua ona dela. Eskuragarri dauden datuen arabera (2022ko I. hiruhilekoa), familien gastua % 3,1 hazi da (urte arteko tasa), eta oso gutxi hobetu da 2021eko laugarren hiruhilekoan erregistratutako zifra (+% 3).



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez


11 | eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenez oso ahul jarraitzen dute

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko dituzten igurikimenez indizeak okerrera egin du apur bat (-6tik -7ra) eta urrundu egin da 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan eskuratutako balio positiboetatik (+1 eta +2).

Datu hori apur bat negatiboa da. Izan ere, mantendu egin da erosketa berdinak (gutxi edo asko izan) egiten jarraituko dutela dioten familien taldea (% 50) edo erosketa kopurua zerbait edo asko handituko dutela diotenen taldea (% 21); erosketak murriztuko dituztela diotenen multzoa, berriz, hazi egin da (% 29; ehuneko +3 puntu). Funtsean, emaitza hauek ez dute iragartzen kontsumo handia nabarmen haziko denik.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 | etxebizitza edo autoa erosteko asmoa ahula da

Familien % 1,1ek soilik esan du etxebizitza bat erosiko duela; ehuneko hori aurreko bi hiruhilekoetan erregistratutakoa baino txikiagoa da. Igurikimen horien adierazle gisa, 2022ko lehenengo hiruhilekoan etxebizitzaren salerosketako¹ 6.517 eragiketa egin ziren (+% 16,6, urte arteko tasa), inbertsioaren erakarpenaren, pilotutako aurrezkiaren eta atzeratutako erabakien ondorioz. Saltzeko eskuragarri dagoen stockaren murrizketak baldintzatuko du hobekuntza-ibilbidea.



Ibilgailu bat erosiko duten familien multzoak oso txikia izaten jarraitzen du (% 7,0k esan dute baietz, ziurtasunez), eta ez dago hobetzeko igurikimen argirik. 8.639 ibilgailu berri matrikulatu² dira (urtarrila-maiatza), aurreko urtean baino nabarmen gutxiago (-% 11,3). Dena den, maiatzeko datuek erakusten dute partikularren eta enpresen segmentuak suspertzen has daitezkeela, nolabait.



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 erosketa handien eta inbertsioaren gaineko igurikimenak, beherantz

2022ko bigarren hiruhilekoan EAEko kontsumitzaileen gastu- eta inbertsio-erabakiek behera egin dute, inflazioaren gorakada handiaren eraginez. Izan ere, igoera hori oso agerikoa da faktura energetikoetan eta eguneroko erosketa-organ. Hala...

- Oso ezkorak dira prezioen bilakaerari dagokionez (-52); agertoki inflazionista partekatua (inguruko herrialdeekin) izateak ez du larritasuna gutxitzen.
- Erosteke ahalmena galduko dutela aurreikusten dute: erosteke unearen balorazioa (-35) oso negatiboa da, nahiz eta hori ez oso nabarmen islatu erosketa handiak egiteko igurikimenean (-7). Hain zuzen ere, hiru adierazleen artetik, azken hori da horren negatiboa ez den bakarra (pilatutako aurrezkiagatik?).
- Eta etxebizitza eta/edo ibilgailua erosteke igurikimenaren emaitzak desberdinak dira. Lehenengo hiruhilekoko datuek erakusten dute etxebizitzaren salerosketa hobetu egin dela (+% 16,6), pandemiaren aurreko maila gaindituz eta 2007an erregistratutako gehieneko balioetara (8.287 eta 6.700 lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan) gerturatuz. Baina, bestetik, ibilgailu berrien matrikulazioak ez du hobera egiten (urtarrila-maiatza, -% 11,3).

Balantze horrek erakusten du EAEko familien kezka: pandemia ondorengo suspertzea geldotzen du, eta familiek birpentsatu eta/edo atzeratu egin ditzakete gastu handiekin edo inbertsioarekin lotutako erabakiak. Baliteke, une honetan, oporretako gastua lehenestea, murrizketaz betetako uden ondoren.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	III H-21	IV H-21	I H-22	II H-22	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-41	-64	-34	-52	-17	▼
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-16	-21	-24	-35	-11	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	2	-4	-6	-7	-1	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	III H-21	IV H-21	I H-22	II H-22	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	5	0	8	-7	▼
• Estatua*	-6	-23	-13	-9	-13	-17	-25	▼
• EB*	-6	-15	-9	-6	-9	-15	-22	▼
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-4	-7	-13	-19	▼
○ Alemania*	-2	-10	-5	-1	-4	-9	-19	▼
○ Danimarka*	--	--	6	8	3	-3	-15	▼
○ Herbehereak*	--	--	-3	-1	-11	-16	-25	▼
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	6	-8	3	-20	▼
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-4	-9	-6	-17	▼
• Langabezia	-4	-41	-8	11	10	19	8	▼
• Aurrezkia	2	-2	3	5	8	15	1	▼
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-41	-64	-34	-52	▼
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-16	-21	-24	-35	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	2	-4	-6	-7	▶
Erosketa handiak. EAE.**								
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,1	1,9	2,1	1,1	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,4	8,4	9,7	7,0	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* II. hiruhileko datuak apirila-maiatza batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	<u>2019</u>	<u>2020</u>	<u>2021</u>	<u>III H-21</u>	<u>IV H-21</u>	<u>I H-22</u>	<u>II H-22</u>	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	5	0	8	-7	▼
Adin-mailak								
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	10	5	10	-6	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	4	-1	5	-9	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	8	-1	9	-1	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-3	-2	8	-11	▼
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	9	2	9	-6	▼
• Langabea	-8	-31	-16	-2	-9	-5	-14	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	0	-1	9	-8	▼
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-10	-14	-1	-21	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	9	-2	5	-6	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	17	13	19	6	▼

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	II H – 21	III H – 21	IV H – 21	I H – 22	II H – 22	(azkena)
BPG	18,6	3,9	4,7	5,7	--	I hir.
Familien kontsumoa	22,6	2,1	3,0	3,1	--	I hir.
Afiliazioa	1,0	-0,4	1,9	0,0	0,8	apirila-maiatza
Erregistratutako langabezia	-4,6	-3,0	-2,7	-0,6	-1,6	apirila-maiatza
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,0	1,4	3,9	2,6	--	I hir.
Etxebizitzen salerosketa	-4,0	0,5	-13,2	39,3	--	I hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	22,8	-12,8	3,5	-22,5	-7,4	apirila-maiatza

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- Maiatzaren 9tik 20ra (2022ko II. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm